

B euskararen BERRIPAPERA

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

1 982an onartutako Euskararen Legean, euskararen erabilera normalizatzeko lana egiten laguntzeko harreman organoa sortuko zela aurreikusi zen. Hori horrela, Euskararen Aholku Batzordea sortu zen eta 1987an zenbait eraldaketa egin zitzaizkion. Euskararen Aholku Batzordea, eratu zenetik beretik, herri aginteetako ordezkarien eta euskalgintzan ari diren pertsonen elkargune izan da, eta horren erakusgarri da hainbat urtetan egindako lana. Euskararen Aholku Batzordeak argitaratutako *Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak*

agirian, komenigarritzat jo zen euskararen erabilera sustatzeko plana egitea. Gomendio hari men eginez, plana gauzatzeko zein hizkuntza politikaren behar berrietara egokitzeke, Euskararen Aholku Batzordearen egitura eta osakera moldatzea erabaki da. Hortaz, Euskararen Aholku Batzordea, lehengoari eutsiz, hizkuntza normalkuntzan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeke, bideratzeko eta koordinatzeko gune izango da. Eta bi egiteko nagusi izango ditu aro berri honetan: Euskara Biziberritzeko Plan

Nagusia proposatzea eta proposamenaren betetze maila jarraitzea eta ebaluatzea. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ardatza, erakunde publiko zein pribatuen hizkuntza jokabidea aldatzeko proposamenak egitea izango da; horrela, hobeto beteko dira belaunaldi berrien beharriak. Bestalde, erakundeei egingo zaizkien gomendioak gizarteratuko dira, herritarrak euskara biziberritzearen beharraz jabe daitezen. Egiteko horiek betetzeko, Batzorde Osoa eta batzorde bereziak izango ditu. Batzorde Osoan, herri aginteetako or-

S U M A R I O A

- 1 Euskararen Aholku Batzordea**
- 2 Laburrak
EIZIE
Kontuan hartzeko**
- 3 Ikerketa bisitak European
Udan euskaraz blai**
- 4 Izen-abizenez
Lehen begiratuan
Iritzia**



✕ *Argazkian Euskararen Aholku Batzordean parte hartu duten kideetako batzuk ageri dira. Ondoan, 1993an Batzordeak onetsi zuen agiria.*


dezkarriak, Euskaltzaindia eta euskalgintzan ari diren pertsona ezagunak bilduko dira. Batzorde bereziak, berriz, Batzorde Osoaren erabakiz sortu eta desegingo dira, hark erabakitako gaiak jorrazteko. Batzorde bereziotan, aurreko guztiak eta langai izan ditzaten arloetan diharduten erakundeetako ordezkariak zein adituak izango dira. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak ekainaren 18ko bileran onartu zuen Euskararen Aholku Batzordea berritu eta antzaldatzen zuen Dekretua. Horren ostean, kideen izendapenak egingo dira eta uda aurretik ekingo dio bere egiteko berriari Euskararen Aholku Batzordeak, soin berriz jantzita.

LABURRAK

Udako Euskal Unibertsitateak antolaturik, Baionako eta Iruñeko XXIV. Uda Ikastaroak egingo dira hil honetan. 1973. urtean sortu zenetik, euskara eta unibertsitatea hurbilaztea da UEUren helburua eta ahalegin horretan, euskararen normalizazioa du kezka nagusienetarikoa.

Aurten lehen aldiz, IVAPen laguntzaz antolatu den *Administrazio Hizkera* izenburuko ikastaroa egingo da Iruñean uztailearen 22tik 26ra bitartean; administrazioan euskaraz diharduten langileei zuzenduriko ikastaroa bada ere, administrazioaren idatzizko komunikazioa aztertu nahi duen edonorentzat interesgarria izango da. Iruñean bertan, ahozko komunikazioaren azterketaz, itzulpen juridikoaz edota literatur itzulpengintzaz ere berba egingo dute. Baionan, bestalde, alfabetatzearen eta euskararen familia jarraipenaren inguruko saioak egingo dira.

Aurtengo Uda Ikastaroetan 1.000 ikas-ordu baino gehiago eskainiko dira guztira eta 39 sailetako gaiak aztertuko dira.



Elkarteren beraren izenak adierazten duenez, pentsamenduaren historian klasikotzat jotzen diren lanak euskal irakurleari eskaintzea da *Klasikoak S.A.* taldearen helburua. 1991n sortu zen elkarte asmo horrexek gidatuta, hainbat erakundek diruz lagundurik. Orduan 50 liburu euskarazko helburua finkatu zen; une honetan 12 liburu baino ez dira falta hasierako asmo hura egia bihur dadin. Benedetto Croceren *Estetika-brebiarioa* lana dugu sail honetako 37. liburukia. Koldo Biguri gasteiztarrak egin du itzulpena eta Lurdes Auzmendi arduratu da lana gainbegiratzeaz. Sailaren 38. liburukia, Roland Barthesen *Idazkuntzaren zero gradua*. *Testuaren atsegina* izeneko lana da, Juan Garziak itzulia eta Bego Montoriok zuzendua.

EIZIE

EUSKAL ITZULTZAILE,
ZUZENTZAILE
ETA INTERPRETARIEN
ELKARTEA

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte (EIZIE) 1987. urtean sortu zen euskal itzultzaileen arazo eta premiei erantzuteko asmoz. Elkarteko xede nagusiak hurrengo hauek dira: euskal itzultzaileei behar duten babesa eskaini, euskal itzulpenen kalitatea zaindu eta itzultzaileen prestaketa bultzatu. Egun 175 bazkide dituen elkarte honen egitura, ohiko zuzendaritza karguez gain, lau batzorde nagusik osatzen dute: administrazio, komunikabide, literatura eta interpretaritzakoak. EIZIEk bi argitalpen nagusi kaleratzen ditu: bazkideentzako KERA boletina batetik, eta SENEZ Itzulpen eta Terminologiako aldizkaria, bestetik.

Horrez gain, aipatzekoa da aurten kaleratu den "Itzulpen Antologia I" liburua. EIZIEk "ohorezko bazkide" izendaturiko lehen zortzi itzultzaile handiren hainbat lan biltzen dira argitalpen horretan eta hurrengo urteotan bilduma berriek ikusiko dute argia. Elkarreak era askotako iharduerak burutzen ditu, besteak beste, arlo desberdinetako itzultzaileentzako ikastaroak eta mintegiak; itzultzaile elkarteekiko harremanak; euskal itzulpenen katalogoa, eta ikastaroak EHUko Udako Euskal Unibertsitatearen inguruan. Nolanahi ere, *Literatura Unibertsala* itzulpen bilduma da EIZIEren ekintzen barruan, jendeaurreko

eragin eta entzute handiena duena. *Literatura Unibertsala* bilduma literaturako ondare unibertsaleko 100 obra itzultzeko proiektua da, eta dagoeneko 50 liburu argitaraturik daude eta beste 21 argitaratze bidean. Itzulpen programa hau Eusko Jaurlaritzak finantziatzen du hitzarmen baten bidez; argitalpen lanak Ibaizabal argitaletxeak burutzen ditu eta gainerako gestioak EIZIEk hartzen ditu bere gain. Azpimarratzekoa da bildumaren arrakasta, euskarazko literaturak zuen hutsunea betetzen laguntzen duelako, eta kalitate handiko itzulpenak kaleratzen dituelako.

KONTUAN HARTZEKO

Karlos Santamaria II. Ikerketa Saria

Donostiako Euskararen Udal Patronatuak antolaturik, martxan da jadanik *Karlos Santamaria II. Ikerketa Saria*. Donostiako zientzilari, humanista eta euskaltzalearen omenez antolaturiko sariak honetara aurkez daitezke giza zientzia, zientzia edo teknologiar buruz euskaraz idatziriko lan originalak. Bestalde, Donostian erroldaturiko idazleek

dute sariak honetan parte hartzeko egokiera. Lanak Euskararen Patronatura igorri behar dira irailaren 22a baino lehen eta sariak banatzeko ekitaldia abenduaren 19an egingo da. Informazio gehiago behar izanez gero, ondoko helbidera zuzendu zaitezke: Donostiako Euskararen Udal Patronatua, Konstituzio Plaza 6, behea.

★ **Ahoz aho, belanez belan ... hil honetan non?**

Uztailaren 8tik 14ra, Zaldibarren

Uztailaren 15etik 21era, Berrizen

IKERKETA BISITAK EUROPAN

Europako Batzordeak, Hizkuntza Gutxiengotuen Europako Bulegoaren lankidetzaz, ikerketa bisiten programa gauzatzen du 1983. urteaz geroztik

Programa honen arabera, ikasturtero ikerketa bisitak antolatzen dira hizkuntza gutxiengotuak dituzten komunitateetara. Partehartzaileek, bisitaldi hauetan, hezkuntza sistemak, komunikabideek, gobernuak eta tokiko erakundeek hizkuntza gutxiengotua sustatzeko prozesuan duten egitekoa behatu eta aztertzen dute. Programa honetarako "biderkatzaileak" deritzenak hautatzen dira, hau da, hizkuntza gutxiengotua duten komunitateetako partaide sonatuak; bertako eta dagokion autonomiako erakundeetako ardu-

radunak, kazetariak, bigarren eta hirugarren irakaskuntza mailetakoko maisu-maistrak eta irakasleak, esaterako.

Ikerketa-bisiten helburu nagusiak hauek dira:

* Elkarteko hizkuntza eta kulturarekin zerikusia duten hezkuntzako, kulturako, administrazioko eta komunikabideetako egituren azterketa ahalbidetzea.

* Elkarre osoko hizkuntza gutxiengotuen garapenari buruzko informazio hautatua, eguneratua eta kalitatezkoa areagotzea.

Datorren ikasturterako (1996-1997) bisiten programa eta gaiak honako hauek dira:

- Komunitate suediarra Finlandian: elebitasuna sustatzea.
- Komunitate gaelikoa Eskozian: bisita orokorra.
- Euskal Herria: herri administrazioa.
- Komunitate finlandiarra Suedian: helduen hezkuntza.
- Ipar Katalunia: mugaz harandiko harremanak.
- Komunitate alemana Danimarkan: hezkuntza.

Udan euskaraz blai

BIZKAIAN

1- Aurten Bai	6308304
2- AEK	4241710
3- Bilbo Zaharra	4158292
4- Ulibarri	4166568
5- Uztarri	4249930
6- Gabriel Aresti	4232312
7- Durangoko U.E.	6200838
8- Ermuako U.E.	170925
9- Labayru	4437684
10- Santurtziko U.E.	4610215

ARABAN

2- AEK	226050
11- Udaberria	223433

GIPUZKOAN

13- Maizpide	889231
14- Ilazki	424910
15- Urrats	465593
16- Hitzez	278155
17- Errenteriako U.E.	525006
18- Pasaiaiko U.E.	393318
19- Altza	400316
20- Monpas	272711
21- Kuluxka	526657
22- Urumea	464655
2- AEK	471934

NAFARROAN

2- AEK	220213
12- Ika	637796

IPARRALDEAN

2-AEK	257909
-------	--------

ONDOKO MAPAN IKUS DAITEKEENEZ, AURTEN ERE, BARNETEGIAK NONAHI DITUGU; EUSKARA ETA UDA, BERAZ, ESKUTIK IBILIKO DIRA BERRIRO. INFORMA ZAITEZ!

Jon Sarasua Doktoradutza tesia *cum laude*

Jon Sarasua kazetariak doktoradutza tesia defenditu du EHU'n, eta *cum laude* goraiamena lortu du. Inñaki Zabaleta irakaslea arduratu da *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari* izenburuko tesia zuzentzeaz eta bertan, gaur egungo hedabideetan euskarak duen presentzia aztertu du Sarasuak.

Komunikabideetan nagusitzen den euskarari bizitasuna falta zaiola uste du Sarasuak. Izan ere,

inguruko hizkuntzetara gehiegi makurtzeak naturaltasuna galtzea dakarrela adierazi du tesiegileak. Egoera horri konponbidea jartzea ez da erraza izango, baina Sarasuak komunikabideetan kontuan hartu beharko liratekeen zenbait ezaugarri zerrendatu ditu. Batetik, komunikabideetako erregistroak argitasuna eta zehaztasuna bilatu beharko lituzke, eta bestetik, euskalki desberdinen ondarea bere egin beharko luke.



Sagrario Alemanek Larreko Saria jaso du

Sagrario Alemanek eskuratu du aurten Euskalerrri Irratiak bigarren aldiz eman duen *Larreko Saria*. Nafarroan euskararen alde egindako lana omentzea da sari honen helburua. Antolatzaileen hitzetan, urtetako lan ixilari txalo egiteko ere balio izan du aurtengo sariak.

Etxalekun jaio zen Sagrario duela 44 urte. Madrilgo Complutense Unibertsitatean egin zituen Farmaziako

ikasketak eta bertan lizentziatu bazen ere, ez da inoiz lanbide horretan aritu. Artean ikasle zelarik, euskarazko eskolak ematen hasi zen eta geroztik, zeregin horretan aritu izan da. 20 urte inguru daramatza helduen alfabetatze eta euskalduntze lanean, eta IKA erakundearen barruan, hainbat ardura izan ditu denbora horretan. Gaur egun, Iruñeko Arturo Kanpion euskaltegiko zuzendaria da.



IRITZIA

Etorkizuneko erronka

Azken urteotan, herri elkarteek lan handia egin dute euskara biziberritzeko eta gizartearen beharretara egokitzeko. Era berean, herri aginteek ere ahalegin eskerga egin dute, batetik, euskararen bilakaera aztertzeke zein hizkuntza politikaren ildo nagusiak finkatzeko eta, bestetik, horretarako behar diren giza, diru zein bestelako baliabideak eta bitartekoak antolatzeke. Guztiei esker, hortaz, euskara inoiz baino osasuntsuago dago: galduta zituen lurraldeak berreskuratzen ari da; hiztunen kopurua goraka doa etengabe; eta, egunetik egunera, erabilera eremu gehiago ditu. Denon erronka da orain artekoa ebaluatzea eta batzuen eta besteen indarrak batu, osatu, sendotu eta koordinatzeko ahaleginak areagotzea. Hori baita etorkizunean baliabideei etekinik handiena ateratzeko biderik egokiena. Horixe da, hain zuzen, Euskararen Aholku Batzordearen egitekoa: orain arte eginikotik abiatuz, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egitea.

Josune Ariztondo Akarregi
Hizkuntza Politikarako
sailburuordea

Lehen begiratuan

Orainsu 30 urte bete baditu ere, gazte baten bihotza eta sasoia du Kili-Kilik. Urte horietan guztietan, milaka haur eta gazte ibili dira Kili-Kilik prestatu dizkien ekintzetan; horra hor, beste askoren artean, "Kili-Kili eguna", "Kili-Kili Jaialdiak", "Ezetz igarri" edo "Ezetz jakin". Eta aitortu digunez, gutxienez beste 30 urte betetzeko asmoa badu. Zorionak!



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: